

FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Erregelamendua.

HITZAURREA

Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legearen arabera, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak Nafarroako Kulturaren Kontseilua ordeztuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kultur arloko kontsulta eta aholku organo gisa.

Nafarroako Kulturaren Kontseilua 1984an sortu zen, Foru Komunitatean garapen kulturala sustatzeko. Horretarako, eginkizun hau eman zitzaion: nafarren behar eta interes kulturalak helaraztea kulturaren arloan eskuduna den organoari, behar ziren ekintzak proposatuz lurraldeko garapen kultural hobea lortzeko nahiz Administrazioaren programen jarraipena egiteko, ordezkatzeko dituzten adimenaren eta arteen eremuen ikuspegik.

Bere ibilbide luzean, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak agindu zaizkion lanak bete ditu, zubi-eginkizuna bete du Administrazioaren eta kultur bizitza gauzatzen den eremuen artean, eta alderantziz, eta, bere bidez, kultura plangintzan esku hartzeko aukera eman die horretarako gaitasuna dutenei, dela duten eskarmentuarengatik, duten jakituriagatik edo kultura eta arte bizitzan parte hartzeagatik. Kulturaren arloan erabakiak hartzeko prozesuan beti izan dira oso garrantzitsuak haren proposamenak. Haren ekimenen artean, besteak beste, nabarmentzekoa da Vianako Printzea Kulturaren Saria eratzeko proposamena, Nafarroako Gobernuak 1990ean sortu zuena.

Nafarroako Eskubide Kulturelei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak Kontseiluaren eginkizuna indartzen du, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluari egiteko berriak esleitzen baitizkio eta bestelako osaera ezartzen baitu, kultura eragile guztiek neurri handiagoan parte hartzea lortze aldera.

Aldi berean, foru lege horrek zehazten du erregelamenduz ezarriko direla Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua.

Lege agindu hori betearazteko, bidezko da erregelamendua onestea, zeinaren bidez arautuko baitira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua.

Horrenbestez, Kultura eta Kiroleko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2020ko aren (e)(a)n egindako bilkuran harturiko Erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Erregelamenduaren onespena.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Erregelamendua onesten da. Ondoren txertatu da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 13ko 68/2013 Foru Dekretua eta foru dekretu honetan xedatutakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Arauak emateko gaikuntza.

Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio behar diren xedapenak eman ditzan foru dekretu honen bidez onesten den erregelamendua bete, gauzatu eta garatu dadin.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

NAFARROAKO KULTURAREN ETA ARTEEN KONTSEILUAREN OSAERA,
ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN
ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xedea da Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

2. artikulua. Izaera juridikoa.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua Foru Komunitateko Administrazioak kulturaren eta arteen arloan duen partaidetza, kontsulta eta aholkularitzarako kide anitzeko organoa da.

3. artikulua. Atxikipena eta baliabideak.

Kulturaren arloan eskuduna den departamentuari atxikiko zaio Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseilua; behar bezala aritzeko behar dituen bitarteko materialak eta giza baliabideak emanen dizkio hark.

4. artikulua. Lurralde-eremua eta egoitza.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren lurralde-eremua Nafarroako Foru Komunitate osoa da, eta haren egoitza kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren egoitzaren barnean dago, ezertan ukatu gabe bilkurak beste edozein herritan egiteko aukera.

5. artikulua. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren eginkizunak.

Hauek izanen dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aholku ematea kulturaren arloan.

b) Kulturaren arloan eskuduna den departamentuarekin elkarlanean aritzea haren kultura politikak zehazten, gauzatzen eta ebaluatzen kulturaren eta arteen esparruetan.

c) Kulturari eta arteei buruzko eztabaida eta jakintza piztea Nafarroako Foru Komunitateko kultura politiken esparruan.

d) Kulturaren eta kultura politikaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.

e) Informazioa jasotzea eta aholku ematea Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa prestatu, aplikatu eta ebaluatzeko, baita kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren plan sektorialak eta zeharkakoak prestatu, aplikatu eta ebaluatzeko ere.

f) Aginduzko txostenak ematea kulturaren eta arteen arloko arauen proiektuei buruz, baita kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren plan estrategiko, sektorial eta zeharkakoei buruz ere.

g) Nafarroako Gobernuari proposatzea Vianako Printzea Kulturaren Saria nori eman.

h) Informazioa jasotzea kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren aurrekontu proiektua egiteko prozesuari eta haren betearazpenari buruz.

i) Kultura ondarea babestu eta ugaritzeko ekimenak plazaratu eta egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzea.

j) Aginduzko txostenak ematea kulturaren arloan eskuduna den departamentuak sustatzen dituen kultura ekipamendu berri guztiei buruz.

k) Ordenamendu juridikoak ematen dizkion gainerako eginkizunak betetzea, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haren esku uzten dituenak ere.

II. KAPITULUA

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera eta antolaketa

1. atala.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren osaera.

6. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak kide hauek izanen ditu:

1.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean:

a) Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularra, buru izanen dena.

b) Kulturaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiko titularra.

1.2. Nafarroako toki entitateen izenean: Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak izendatutako bi pertsona, udaletako kultura zerbitzuetan teknikari aritzen direnak.

1.3. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren izenean: Batzorde Betearazleak izendatutako pertsona bat.

1.4. Kontseiluaren eginkizunen esparruan prestigio handia, ezagutza espezializatua edo presentzia frogatua duten hamar pertsona, gehienez.

1.5. Nafarroan erregistratuak dauden eta gutxienez bi urteko funtzionamendua duten lanbide entitate eta elkarten hamar ordezkari, gehienez, Nafarroako Eskubide Kulturei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aipatutako kultura sektoreetakoak. Bai lanbide entitate eta elkarte horien zehaztapena, bai proposamena egiteko prozedura, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera egingen dira.

2. Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularraren foru agindu baten bidez izendatuko dira aurreko apartatuko 2., 3., 4. eta 5. zenbakiek aipatzen dituzten pertsonak.

3. Kontseiluaren osaeran genero parekotasuna bermatuko da.

7. artikulua. Lanbide entitate eta elkarten ordezkarien proposamena.

Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak izendatuko ditu lanbide entitate eta elkarten ordezkariak, entitate eta elkarte horiek proposatuta, haien estatutuetan ezarritakoarekin bat. Proposamen hori egiteari begira, kulturaren arloan eskuduna den departamentuak epe bat ezarriko du kandidaturak aurkezteko.

Epea bukatuta hamar hautagai besterik ez badira aurkeztu, zuzenean izendatuko dira. Hamar hautagai baino gehiago badaude, kulturaren arloan eskuduna den departamentuak eguna eta ordua jarriko ditu haien artetik hautatzeko, gehienez ere hiru aldiz. Aukera hori agortu ondoren, baita epean hautagaitza nahikorik aurkezten ez bada ere, kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak berak izendatuko ditu lanbide entitate eta elkarten ordezkariak, izendatuek onartu ondoren.

8. artikulua. Kideen agintaldiaren iraupena eta kargua uztea.

1. Kontseilua erabat berrituko da legegintzaldi bakoitzean, Nafarroako Gobernu berria eratu eta gehienez ere bederatzi hilabetera.

2. 6. artikuluko 1.1 apartatuan aipatzen diren kontseiluko kideek kargu publikoak betetzeari uzten diotenean utziko dute beren kargua.

3. Kontseiluko gainerako kideek honako arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

- a) Desgaikuntza edo ezgaitze judizialagatik edo heriotzagatik.
- b) Uko egiteagatik.
- c) Osoko bilkuraren erabakiz, gehiengo absolutuz, lehendakariak edo kideen heren batek proposaturik, eginkizunak behin eta berriz bete gabe uzteagatik.

9. artikulua. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideen estatutua.

1. Hauek izanen dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideen eginkizunak:

a) Bilkuretako deia eta gai-zerrenda jasotzea garaiz, behar den informazioarekin batera.

b) Kontseiluko osoko bilkuraren bileretara joatea, eta horietan aztertzen diren gaien inguruko eztabaidetan parte hartzea eta horiei buruzko botoa ematea; eta gauza bera parte hartzen duten batzorde eta lan taldeetan ere.

c) Osoko bilkurari edo batzordeei egokitzat jotzen dituzten proposamenak egitea.

d) Karguari dagozkion gainerako eginkizunak gauzatzea.

2. Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak foru agindu baten bidez ezarriko ditu Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kideek beren eginkizunak gauzatzegatik jasoko dituzten konpentsazioak.

3. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak jardunbide egokien barne erregelamendu bat prestatuko du.

2. atala

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren antolaketa

10. artikulua. Kontseiluko organoak.

Hauek izanen dira Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko organoak:

a) Lehendakaritza.

- b) Osoko bilkura.
- c) Batzordeak.

11. artikulua. Lehendakaritza.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko lehendakariak kontseiluaren ordezkariak du, eta, kide gisa dituen eginkizunez gain, ondokoak ere bete beharko ditu:

a) Kontseiluko osoko bilkuraren bileren deialdia egitea eta gai-zerrenda finkatzea.

b) Kontseiluko osoko bilkuraren bileretan buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea eta bilerak bideratzea.

c) Batzordeek edo osoko bilkurak azertu beharreko gaiak banatzea.

d) Osoko bilkuraren bozketetan egon daitezkeen berdinketak haustea, bere kalitateko botoa erabiliz.

e) Gai zehatzak aztertzeko lantaldeak sortzea. Osaerari dagokionez, lehendakariak ezartzen dituen kontseiluko kideez gain, behar den gaiarekin lotutako adituak ere gonbida ditzake parte hartzera.

f) Kontseilukoak ez diren adituei txostenak agintzea, beharrezkotzat jotzen denean.

g) Kontseiluko osoko bilkurak hartzen dituen erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onestea.

h) Kontseiluko organoek hartutako erabakiak behar bezala bideratzea.

i) Lehendakari izateak berez dakartzan gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Lehendakariaren kargua hutsik badago, kanpoan edo eri badago eta justifikatutako beste arrazoi bat badago, kulturaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiko titularra arituko da haren ordezkari.

12. artikulua. Osoko bilkura.

Honako hauek osatuko dute Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko osoko bilkura:

a) Kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularra, buru izan dena.

b) Kulturaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiko titularra.

c) Kontseiluko kideen artean izendatutakoak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

13. artikulua. Batzordeak.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak batzorde batzuk izanen ditu, hain zuzen ere, kulturaren arloan eskuduna den departamentuak atxikirik dituen kultura arloko eskumenak gauzatzen dituzten zerbitzuak adina.

2. Batzorde bakoitzak horri dagokion zerbitzuaren izen bera hartuko du, eta bere eskumenen eremuari dagozkion eginkizunak beteko ditu, kontseiluaren berezko eskudantzien esparruan.

3. Kontseiluko lehendakariak beste batzorde batzuk sortzea erabakitzen ahalko du, komenigarritzat jotzen bada berari esleitutako eginkizunak hobeki garatzeko.

4. Kontseiluko hiru kidek osatuko dute batzorde bakoitza, gutxienez, eta horiek izendatuko dira osoko bilkuraren erabaki baten bidez, interesdunei entzunaldia eman ondoren.

5. Kontseiluko lehendakaria izan ezik, kontseiluko kide bakoitza aldi berean gehienez ere hiru batzordetako kide izanen da, salbu kontseiluko osoko bilkurak espresuki besterik baimentzen badu.

6. Batzorde bakoitzak burua eta idazkaria izendatuko ditu bere kideen artean.

14. artikulua. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko idazkaria.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko idazkaria izanen da Administrazio Publikoko teknikaria (arlotu juridikoa) den bat, kulturaren arloan eskuduna den departamentuko titularrak izendatutakoa.

2. Idazkaria ez da kontseiluko kideztat joko, eta honako eginkizun hauek gauzatuko ditu:

a) Kontseiluko osoko bilkuraren bileretarako deia egitea, lehendakariak aginduta.

b) Kontseiluko osoko bilkuraren bileretarako behar diren agiriak prestatzea.

c) Kontseiluko osoko bilkuraren bileretara joatea eta karguari dagozkion eginkizunak gauzatzea, hizpidearekin baina botorik gabe.

d) Kontseiluko osoko bilkuraren bileren aktak idaztea.

e) Kontseiluko osoko bilkurak edo horretan buru aritzen denak hartzen dituen kontsulten, irizpenen edo erabakien ziurtagiriak egitea.

f) Kontseiluaren jarduketan legezketasuna zaintzea, eta eratze- nahiz erabaki-hartze prozedurak eta erregelak errespetatzen direla bermatzea.

g) Idazkaritzako titularra izateagatik berezko dituen beste eginkizunak betetzea, edo lehendakariak esleitzen dizkionak.

3. Idazkariaren kargua hutsik badago, kanpoan edo eri badago eta justifikatutako beste arrazoi bat badago, kulturaren arloan eskuduna den zuzendaritza nagusiko titularra arituko da haren ordean.

III. KAPITULUA

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren funtzionamendua

15. artikulua. Gaiak osoko bilkuraren eta batzordeen artean banatzea.

1. Oro har, arloaren arabera eskuduna den batzordeak edo batzordeek eginen ditu edo dituzte Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren menpe jartzen diren gaien buruzko txostenak.

2. Kontseiluko idazkariak igorriko dizkie gaiak batzordeei, lehendakariaren jarraibideei jarraikiz.

3. Kontseiluko osoko bilkurari dagokio xedapen orokorrean buruzko txostena egitea, baita lehendakariak ezartzen dituen gainerako gai garrantzitsuei buruzko txostenak ere.

16. artikulua. Osoko bilkuraren bilerak.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak urtean bitan eginen du osoko bilkuraren bilera arrunta, eta bilera berezia, berriz, lehendakariak deitzen duenean, bere ekimenez edo kideen heren batek eskaturik.

2. Bilera arruntetarako deia kontseiluko idazkariak eginen du, lehendakariak agindurik. Gutxienez ere hamar egun natural lehenago eginen da, eta gai-zerrenda jasotzen duen deialdiarekin batera, gai horiek aztertzeko behar den dokumentazioa igorriko da.

3. Aurreko apartatuan ezarritako formalitateekin bat egingen da bilera berezietarako deia, bilera baino hiru egun natural lehenago gutxienez.

17. artikulua. Osoko bilkuraren funtzionamendua.

1. Kontseiluko osoko bilkura modu baliozkoan eratu eta batzarrak egiteko, eztabaidak izateko eta erabakiak hartzeko, beharrezkoa izanen da lehendakaria eta idazkaria bertaraturik egotea –edo, kasua denean, haien ordezkioak–, bai eta kontseiluko kide kopuruaren erdiak gutxienez ere.

2. Osoko bilkurak kontseiluaren barne funtzionamendurako behar diren arauak edo erabakiak onetsi beharko ditu.

18. artikulua. Osoko bilkurak erabakiak hartzea.

1. Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko osoko bilkuraren erabakiak bilera dauden kideen gehiengo soilez hartuko dira.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ulertzen da gehiengo soila lortzen dela aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean, zenbatu gabe abstentzioak, boto baliogabeak eta zuriak. Lehendakariak hautsiko ditu berdinketak.

2. Osoko bilkurako kideetako batek hala eskatzen badu, bozketak sekretuak izanen dira.

3. Ezin eztabaidatu edo erabakiko da gai-zerrendan sartua ez dagoen deus, salbu, osoko bilkurako kide guztiak bildurik daudela, gaia presazko deklaratzeko bada gehiengoak horren aldeko botoa emanda.

4. Osoko bilkurako kideek hartu den erabakiaren aurka bozkatu dutela agerraraz dezakete aktan, baita horretarako arrazoiak ere.

19. artikulua. Osoko bilkuraren bilera akta.

1. Bilera bakoitzaren akta egingen da, eta, hartan, agertuko da nor bertaratu den, zein izan den gai-zerrenda, noiz eta non egin den, deliberazioko punturik garrantzitsuenak, bozketa modua eta emaitza, eta hartutako erabakien edukia.

2. Lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, eta horiek onetsiko dira bilera horretan bertan edo hurrengoan.

3. Aktak kulturaren arloan eskuduna den departamentuko idazkaritza tekniko nagusian gordeko dira, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kide guztien eskura egonen dira eta, onetsi ondoren, kulturaren arloan eskuduna den departamentuaren web-orrian argitaratuko dira.

20. artikulua. Batzordeen bilerak.

1. Batzordeek sei hilean behin bilera bat egingen dute, gutxienez.

2. Batzordeko idazkariak egingen du batzordearen bileretarako deia, batzordeburuaren aginduz.

3. Bileretarako deia gutxienez ere bost egun natural lehenago egingen da, eta gai-zerrenda eta bidezko agiriak batzordeko kide guztiei igorriko zaizkie.

4. Bilerak ezin dira egin, ez baldin badaude batzordeburua edo hark eskuordetzen duen batzordekidea, idazkaria eta batzordekide bat, gutxienez.

21. artikulua. Batzordeek erabakiak hartzea.

1. Batzordeen erabakiak bileran dauden kideen gehiengo soiluz hartuko dira.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, ulertzen da gehiengo soila lortzen dela aldeko botoak kontrakoak baino gehiago direnean, zenbatu gabe abstentzioak, boto baliogabeak eta zuriak. Batzordeburuak hautsiko ditu berdinketak.

2. Batzordeko kideetako batek hala eskatzen badu, bozketak sekretuak izanen dira.

3. Ezin eztabaidatu edo erabakiko da gai-zerrendan sartua ez dagoen deus, salbu, batzordeko kide guztiak bildurik daudela, gaia presazko deklaratzeko bada gehiengoak horren aldeko botoa emanda.

4. Batzordekideek hartu den erabakiaren aurka bozkatu dutela agerraraz dezakete aktan, baita horretarako arrazoiak ere.

22. artikulua. Batzordeen bileren aktak.

1. Batzordeen bilera bakoitzean akta jasoko da; batzordeko idazkariak idatziko du, eta berak eta batzordeburuak sinatuko.

2. Batzordeak onetsiko ditu aktak, izaten den hurrengo bileran.

3. Aktak kulturaren arloan eskuduna den departamentuko idazkaritza tekniko nagusian gordeko dira, eta Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko kide guztien eskura egonen dira.

4. Bileretan hartutako erabakiei buruzko ziurtagiria egingen du batzorde horretako idazkariak, eta erabakiak igorriko dizkie zerbitzu, unitate edo erakunde eskudunei, behar diren ondorioak izan ditzaten.